

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1169

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 22koa, Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkariarena, zeinaren bitartez zehaztutako finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia egiten baita. Aipatutako finkak instalazio honen eraginpean daude: Urkabustaiz udalerrian (Araba) «13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko aireko linearen eroalearen berritzeko proiektua, «Urkabustaiz-Izarra Cto1», 170013680 zenbakiko «Landaverde» transformazio-zentro berrirako deribazioetan».

Espedientea: 01-AT-Y-2022-00017.

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkararen 2022ko urriaren 5eko Ebazpenaren bidez, alde z aurreko administrazio-baimena eta eraikuntza-baimena eman ziren, eta aipatutako instalazio elektrikoa onura publikokoa zela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, onura publikoaren deklarazioak berekin dakar ondasunak okupatu beharra edo eraginpeko eskubideak eskuratu beharra, eta okupazioa presaz egin beharko da, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluen ondorioetarako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betez, Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkariek erabaki du ebazpen honen eranskinean agertzen diren eraginpeko ondasun eta eskubideen titularrei eta jabeei dei egitea, Urkabustaizko udaletxean biltzeko (udalerrri horretan baitaude eraginpeko ondasunak), eraginpeko ondasunak okupatu aurreko aktak egiteko, bat etorritik 52. artikuluan ezarritako prozedurarekin.

Interesdun guztiak, bai eta eragindako ondasunen gaineko edozein motatako eskubide edo interesen titularrak diren pertsonak ere, pertsonalki edo behar bezala baimendutako pertsona batek ordezkatuta bertaratu beharko dira, eta titulartasuna egiaztatzen duten dokumentuak (eskriturak, Jabetza Erregistroko informazio-oharrak edo beste batzuk) eta kontribuzioaren azken ordainagiria aurkeztu beharko dituzte, finkako errentariarekin batera (halakorik balego); gainera, egokitze jotzen badute, peritu edo notario batekin ere joan daitezke.

Aktak 2023ko apirilaren 20an egingo dira, 9:00etatik aurrera, Urkabustaizko udaletxean. Titular bakoitzari zitazio-zedula bat bidaliko zaio, eta hor zehaztuko dira lekua, eguna eta ordua. Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako gainerako argitalpenak ere egingo dira.

Desjabetze-espeditentean, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. enpresak onuradun izaera hartuko du.

Era berean, bat etorritik Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratutako zerrendetan agian agertzen ez diren eskubide erreal zein interes ekonomikoen titularrek eta interesdunek egoki ikusten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eraginpeko ondasunen eta eskubideen zerrendetan izan daitezkeen

2023ko martxoaren 3a, ostirala

akatsak zuzentzearen. Alegazio horiek idatziz aurkeztu beharko dira Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, 01008 Vitoria-Gasteiz), eta hori egiteko epea aurreko aktak egiteko egunean amaituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 22a.

Industria Administrazioiko Arabako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRIGUEZ DIAZ.

ERANSKINA

Finka	Poligonoa	Partzela	Udalerria	Titularrak	Eguna	Ordua
1	3	298	Urkabustaiz	M. ^a Monserrat Bocos Laconcha	2023-04-20	09:40
2	3	588	Urkabustaiz	Juan José Landazuri Palacios	2023-04-20	10:00
3	3	163	Urkabustaiz	M. ^a Carmen Monserrat Murga Urtaran	2023-04-20	10:20